

Aste Santuan eta 2026ko Pazko astean txartel bidezko kontsumo-aurreikuspenak

## **Txartelaren erabilera handiagoa Aste Santuan Euskadin: gastua % 4,5 haziko litzateke eta eragiketak % 8**

---

**Aisialdiko eta jatetxeetako erosketak izango lirateke aurrerapenaren buru: % 10,4 igoko lirateke zenbatekoan eta % 14,2 eragiketa-kopuruan**

---

**Aurreikuspenen arabera, mugikortasun-gastuak behera egingo du: gasolindegia (-% 8,3) eta bidaia (-% 3,6)**

---

**Jarduera handiagoko testuinguruan, segurtasun-neurriak zorroztea gomendatzen da**

---

**26.03.30.** Kutxabankek aurtengo Aste Santuan eta Pazko astean, 2025eko epe berarekin alderatuta, txartel bidezko erosketak % 4,5 igotzea aurreikusi du EAEn, 115,3 milioi euroraino. Eragiketa-kopurua % 8,1 igoko litzateke, 3,4 milioiraino, eta batez besteko tiketak, berriz, % 3 baino gehiagoko beherakada txiki bat izango luke, 2025eko aldi beraren aldean.

Aste Santuan eta Pazko-astean txartelaren erabilera aurreikusitako hazkundera aisialdiaren eta jatetxeen eremuan izango litzateke batez ere, horiek baitira aurrera egiten dutenak, gastua % 10,4 handituta, 18 milioi euroraino, eta eragiketa-kopurua % 14,2 gehituta.

Elikadurako kontsumoak ere portaera sendoa izango luke, gastua % 5,9 haziko bailitzateke, 53,2 milioi euroraino, eragiketak % 7,7 gehituta. Bestalde, elikaduraz bestelako kontsumoa % 2,1 haziko litzateke.

Bankuak Aste Santuan eta Pazko-astean txartelen gastuan egindako kalkuluek mugikortasun-gastuaren moderazioa aurreikusten dute. Erregaiaren kontsumoa % 8,3 jaitsiko litzateke, 2025eko aldi beraren aldean. Halaber, bidaia-segmentuak jarduera txikiagoa izango luke, gastuaren % 3,6ko jaitsierarekin.

### **Txartelaren erabilera handiagoa, segurtasunari arreta gehiago jarrita**

Oporraldian jarduera handiagoa izaten den testuinguruan, txartelak erabiltzean segurtasun-neurriak zorroztea gomendatzen da, iruzur-arriskuak minimizatzeko.

Alde horretatik, garrantzitsua da zenbaki sekretua (PIN) babestea —ez partekatzea, ez idaztea edo erraz identifika daitezkeen konbinazioak ez erabiltzea— eta txartela beti kontrolpean izatea ordaintzeko unean. Era berean, erabilera-mugak benetako beharretara egokitzea eta mugimenduak aldizka berrikustea gomendatzen da, baita banka digitalaren funtzionalitateak erabiltzea ere, behar izanez gero txartela piztu, itzali edo blokeatzeko.

Kutxabanken kasuan, izapide hori 900 44 55 66 telefonora deituta egin daiteke, edo zuzenean online bankatik. Era berean, funtsezkoa da Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen aurrean edozein iruzur-saiakera salatzea.